



**NARDEAGA ETA PEDRO IGNACIO BARRUTIA KALEAK ELKARTZEN DIREN EREMUA
GUZTIZ IRISGARRI EGITEKO LANAK PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN BIDEZ
KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA.**

I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Klausula-agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea hau da: Nardeaga eta Pedro Ignacio Barrutia kaleak elkartzeko diren eremua guztiz irisgarri egitea, espedienteko dokumentazio teknikoarekin bat etorruta; dokumentazio horrek kontratu-balioa du.

CPV kodea: 45233262-3.

Obrak ez daude sortatan zatituta. 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak (SPKL aurrerantzean) 99.3 artikuluan agindu bezala, espedientean jasotako txostenetan zehaztu eta justifikatzen den bezala.

2. KONTRATATU BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Kontratazio-espedientearen txosten egokian jasota dago zer arrazoiengatik egingo duen administrazio honek agiri honen xede den kontratua.

3. EGIKARITZEKO EPEA

Kontratu honen xede diren obrak egikaritzeko guztirako epea hau da: BI HILABETE, zuinetaren egiaztapenaren akta izenpetu eta hurrengo egunetik aurrera.

Obrak epe horretan burutzen ez badira, kontratista berandutze-egoeran dagoela joko da. Horretarako, ez da beharrezkoa izango administrazioak aldeztu aurretik betetzeko agindua ematea.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

1.- Hauxe izango da lizitazioaren oinarritzko aurrekontua: 66.943,06.-€, gehi BEZari dagozkion 14.058,04.-€. Bestela esanda, guztira, 81.001,10.-€ Aurrekontua hobetu dezakete lizitatzailerak.

SPKLren 100.2 artikuluan zehaztutako ondorioetarako, aurrekontua honela dago banakatuta:

- Langile-kostuak: %36
- Zeharkako kostuak: %13
- Mozkin industrialak: %6

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia 66.943,06.-€ da, BEZa aparte.

Kontratuaren prezioaren barruan egongo da unitateko prezioen zerrenda bat, behar bezala banakatuta. Prezio horiek egongo dira indarrean kontratuaren egikaritzeak dirauen bitartean. Lizitatzailerak unitateko preziorik aurkezten ez badu, ulertuko da administrazioaren aurrekontukoak hartzen dituela oinarritzat, bere prezio-proposameneko beharrezko-ehunekin bera kenduta.

5. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurreikusita dago urteko aurrekontuaren konturako finantzaketa 2021eko udal aurrekontuan.



6. ORDAINKETA-ARAUBIDEA

Egikaritutako obrak ordaintzeko, obren zuzendari fakultatiboak ziurtagiriak emango ditu hilabeteko izaerakoak, enpresa esleipendunak eginak, aldi horretan egindako zerbitzuaren arabera, eta ordainagiri hori gainbegiratu eta kontrastatuko du zerbitzuaren ardura duen udal teknikariak, eta hala badagokio, organo eskudunak onartuko du.

Faktura onartuta, hura ordainduko da legezko epeetan, SPKLren 198 artikuluan xedatuta datozen legez.

Enpresa kontratistak faktura aurkeztuko du formatu elektronikoa, Arabako Fakturen Sarrera Puntu Orokorraren bidez (www.aramaio.eus, "tramiteak online" atalean) aurrekontua exekutatzeko arauan ezarritakoaren arabera eta 25/2013 Legeak, abenduaren 27koak, faktura elektronikoa bultzatu eta fakturen kontularitza erregistroa sektore publikoan sortzen duena.

Faktura elektronikoen sarrerarako beharrezkoak diren DIR3 kodeak, ondorengoak dira:

Aramaioko Udala:

- Organo kudeatzailea: L01010035
- Unitate tramitatzaileria: L01010035
- Kontabilitate bulegoa: L01010035

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan, ez dira berrikusi behar prezioak, SPKLren 103.1 artikuluari jarraituz.

8. BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak behin betiko bermea jarri behar du, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko. Bermearen zenbatekoa adjudikazioaren zenbatekoaren %5 izango da, BEZa aparte.

Berme hori jartzeko epea 17. klausulan aipatutako eskakizunean adierazitakoa izango da. SPKLren 108. artikuluan ezarritako bitartekoetatik edozein erabiliz jarri ahal izango da bermea. Bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabil daitezke bermea jarri dela egiaztatzeko. Baldintza hori lizitatzailerari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez bada, administrazioak ez du adjudikazioa beraren alde emango.

Bermea itzultzeko edo ezeztatzeko, osorik edo hala badagokio partez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, bermealdia amaitu eta adjudikaziodunak kontratuan ezarritako betebeharrak guztiak bete ondoren.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Kontratu hau prozedura ireki sinplifikatuaren bidez adjudikatuko da, SPKLren 159. artikuluko 1 eta 5 atalen artean ezarritakoari jarraituz; lege horretan eta hura garatzeko arauetan ezarritako jardunei jarraituko zaie adjudikazioa izapidetzean.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hau bitarteko elektronikoz izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituz. Horrenbestez, udalaren eta lizitatzaileraren arteko harremana ere bide horien bitartez egingo da.



11. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Espediente honi lotutako jakinarazpen eta komunikazio guztiak bitarteko elektronikoz egingo dira, honako prozesu honi jarraituz:

- 1) Hartzaillearen esku jartzea.
- 2) Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukiak eskuratzeko bidea.

Epeak egun honetatik hasiko dira zenbatzen: jakinarazpena egiten den egunetik (jakinaraztearen xede den egintza egun berean argitaratzen bada kontratatzaile-profilean), edo jakinarazpena jasotzen den egunetik (egintza ez bada egun berean argitaratzen kontratatzaile-profilean).

Jakinarazpena eskuragarri jarri eta hamar egun naturalen epean hartzaileak onartu ez badu edo uko egin badio, iraungitza joko da, eta betetzat joko da jakinarazteko izapidea.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko eta juridikoek, baldin eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala badituzte, ez badaude sartuta SPKLren 71. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetako batean ere, eta Sektore Publikoko Lizitatzaileren eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Lizitatzaileren eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan inskribatuta badaude, SPKLren 159.4 artikuluan prozedura ireki sinplifikaturako eskatzen den bezala. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke, 17. klausulan ezartzen diren bitartekoak erabiliko dira.

Halaber, nork bere izenean edo baimendutako ordezkari baten bitartez har dezakete parte (ordezkariak berariazko ahalorde askietsia eduki behar du). Pertsona juridiko bateko kideren bat aritzen bada haren ordezkari, agiri bidez frogatu beharko du baduela horretarako ahalmena. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere eragiten diote lehen aipatutako kontratatzeke ezgaitasun horiek.

Pertsona horiek, halaber, kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.

13. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Honako hau da kontratua adjudikatzeko oinarri izango den eskaintzak balioesteko irizpidea:

- Proposamen ekonomiko hobereana

Interesdunen eskaintzak balioesteko, berriz, esandako irizpidea honako formula hau aplikatuz egingo da:

100 puntu emango zaizkio prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzen da formula honetatik: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatzaileren eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkikeen puntuen kopuru osoa, ateratzen den emaitza. Hau da:

$$P = (Eh / E) \times 100$$

Non-eta:

P: lizitatzaileren puntuazioa; Eh: eskaintzarik hobereana; E: lizitatzaileren eskaintza

Eskaintza nabarmenki baxuegia denetz erabakitzeko, Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako parametro objektiboak aplikatuko dira, aurkeztutako eskaintza baliodunak erreferentziatza hartuta.

Eskaintza bat ezohikoa edo neurritz kanpokotzat jotzen denean, eskaintza hori aurkeztu duen lizitatzaileri 5 egun balioduneko epea emango zaio, eskaintzaren balorazioa justifika dezan eta, eskaintza hori, baldintza horietan exekutatu ahal izateko inguruabarren justifikazio egoki



bat aurkez dezan, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoaren Kontratuenak, 149.4 artikuluan arautzen duenarekin bat.

14. KONTRATAZIO-MAHAIA

Honako kide hauek osatuko dute kontratazio-mahaia:

- Mahaiburua: Aramaioko alkate-lehendakaria edo berak eskuordetutako zinegotzia.
- Kideak: Hirigintza Batzordearen lehendakaria edo berak eskuordetzen duen zinegotzia.
 - Gorporazioko idazkaria edo berak eskuordetzen duen pertsona.
 - Administrazio Orokorreko Teknikaria edo berak eskuordetzen duen pertsona.
 - Udala aholkatzen duen Arkitektoa edo berak eskuordetzen duen pertsona.
 - Udala aholkatzen duen Arkitekto Teknikoa edo berak eskuordetzen duena.
- Mahaiko idazkaria: Udala aholkatzen duen Arkitekto Teknikoa.

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA KLAUSULA-AGIRIAK ESKURATZEKO BIDEA

Lizitazio hau Udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman baitago.

Proposamenak bitarteko elektronikoz aurkeztu behar dira plataforma horren bidez, HOGEI (20) egun naturaleko epean, argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera, epearen azken eguneko 14:00ak baino lehen.

Honako helbide hauen bidez sartu ahal izango da Udalaren kontratatzaile-profilean: www.aramaio.eus / www.contratacion.euskadi.eus. Toki horietan bertan eskuratu ahal izango dira klausula-agiriak eta dokumentazio osagarria.

Lizitatzailerik informazio gehigarria eskatzen badute klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruz, jasotzeko ezarritako muga-eguna baino sei egun lehenago emango zaie informazio gehigarri hori beranduenez, baldin eta gutxienez proposamenak jasotzeko muga-eguna baino 12 egun lehenago egin badira eskariak.

SPKLren 136.2 eta 136.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeetan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko alde aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo klausula-agiriari erantsitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, ukitutako hautagaiek eskaintzak egiteko behar duten informazio guztia jasotzeko egokiztat jotzen den adina.

Lizitazio-prozedura honetan, ez da onartuko eskaintzarik gorago adierazitako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ezean. Horretarako, ezinbesteko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, gorabehera hori jakinarazi eta gehienez 24 orduko epea izango du lizitatzailerik fitxategi akastunean zegoen dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Geroago aurkeztutako dokumentu horrek ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako jatorrizko dokumentuaren aldean. Kontratazio-organoak ikusten badu dokumentuak aldaketaren bat izan duela, baztertu egingo da lizitatzaileraren eskaintza.

Proposamenek administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritakoa bete beharko dute. Proposamena aurkezteak berekin dakar lizitatzailerik baldintzarik gabe onartzea klausula edo betekizun horiek, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta Kontratazio Mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailerik edo Enpresa Sailkatuen Erregistroko eta Sektore Publikoko Lizitatzailerik edo Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko datuak kontsultatzeko.



Lizitzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu; dena den, aldaerak onartu ahal izango dira. Halaber, ezin izango du beste aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez inolako proposamenik aurkeztu, baldin eta aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitzaile horrek izenpetutako proposamenik.

Lizitzaileek konfidentzial izenda dezakete eskaintzak egitean berek emandako informazioaren parte bat, informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoa eta SPKLn adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei nahiz lizitzaileei eman behar zaien informazioari buruz dauden xedapenak gorabehera; bereziki, hori egin ahal izango dute beren sekretu tekniko edo komertzialei eta haien alderdi konfidentzialei dagokienez. Udalak ezin izango du informazio hori zabaldu lizitzailearen baimenik gabe.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Lizitzaileek GUTUN-AZAL ELEKTRONIKO bakarra aurkeztu beharko dute, izenburuan «GAITASUNA, KAUDIMENA ETA ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK» dioena; lizitzaileak edo haren ordezkariak sinatuta egon behar du, eta honako dokumentu hauek izango ditu:

a) Posta elektronikoko helbide gaitua.

Posta elektronikoko helbide gaitu bat izendatu behar da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera; helbide horretara igorriko dira kontratazio-espeditate honetatik eratorritako jakinarazpenak.

b) Lizitzailearen erantzukizunpeko adierazpena (I eranskina).

Adierazpen horretan, lizitzaileak adieraziko du betetzen dituela bai administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak, bai kontratua lortzeko klausula-agiri honetan ezarritako eskakizunak, bereziki 12. eta 17. klausuletakoak.

Dena den, prozedura ondo burutzen dela bermatzeko, kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak lizitzaileei eska diezaieke dokumentazioa aurkez dezaten kontratuaren adjudikazioduna izateko klausula-agiri honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, kontratua adjudikatu aurreko edozein unetan.

c) Aldi baterako enpresa-elkarte gisa (ABEE) aurkezten diren eragile ekonomikoen kasuan, hura osatzen duten partaideetako bakoitzak aurkeztu beharko du bere erantzukizunpeko adierazpena. Halaber, konpromisoa aurkeztu beharko dute adjudikazioa lortuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko, eta zehaztu beharko dute partaide bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean.

d) Baldin eta, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.

e) Loteka zatitu bada, eta bakoitzak kaudimen-eskakizun ezberdinak baditu, erantzukizunpeko adierazpen bat emango da sorta bakoitzeko, edo kaudimen-eskakizun berberak dituen sorta multzo bakoitzeko.

f) Automatikoki zenbatestekoa den irizpideari buruzko dokumentua:

- Proposamen ekonomikoa, II eranskineko ereduaren arabera.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzean, egiaztatuko da ea betetzen diren legeak eskatutako izaeraren, gaitasunaren eta kaudimenaren betekizunak.



17. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA; ENPRESAK AUKERATZEA, ETA ESKAINTZAK BALIOESTEIA

17.1. GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKI

Kontratazio-mahaiak, gutxienez 48 ordu lehenago kontratatzaile-profilean argitaratuko den toki, egun eta ordu batean, gutun-azala irekiko du elektronikoki, eta egiaztatuko du hartan jasotako dokumentazioa, kontratu hau lortzeko eskakizunak betetzeari dagokiona. Eskaintza ekonomikoaren datuak jakinaraziko ditu, bai eta gainerako adjudikazio-irizpideenak ere, baldin bada.

Horri dagokionez, dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, mahaiak sei egun balioduneko epea emango du, gehienez, zuzenketak egiteko, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera (zeinak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen baitu).

Ekitaldi publiko horren ondoren, honako jardun hauek egingo ditu mahaiak:

- 1.- Baztertu egingo ditu klausula-agiriko eskakizunak eta betebeharrak betetzen ez dituzten eskaintzak, halakorik badago.
- 2.- Automatikoki ebaluatzeak edo formulak erabiliz zenbatestekoak diren irizpideak balioetsiko ditu.
- 3.- Eskaintza bakoitzak guztira lortutako puntuazioa ezarriko du, eta puntuazio handienetik txikienera sailkatuko ditu eskaintzok.
- 4.- Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzaillearen aldeko adjudikazio-proposamena egingo du.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzaillearen eskaintza nabarmenki baxuegia dela uste izanez gero, 149. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzeagatik, artikulua horretan ezarritako prozedurari jarraituko dio; dena den, ezin izango da izan 5 egun baliodun baino luzeagoa izan lizitatzailleak bere eskaintza justifikatzeko duen epea, dagokion komunikazioa igortzen zaionetik.

Egindako jardun guztien berri emango da espedientean, eta aktetan jaso, nahitaez idatzi beharko baitira aktak.

- 5.- Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistrora edo Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialera joko du, eta kontratua adjudikatzeko proposatutako lizitatzaillearen datuak egiaztatuko ditu: haren izaera, gaitasuna, kaudimena eta kontratatzeke debekurik ez izatea.
- 6.- Komunikazio elektronikoaren bidez, kontratua adjudikatzeko proposatutako lizitatzaileri eskatuko dio zazpi egun balioduneko epean (komunikazioa igortzen zaionetik) jarduketa hauek egin ditzan edo dokumentu hauek eman ditzan:
 - a. Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztageria.
 - b. Lizitatzaillearen esku beharrezko diren baliabideak jarriko dituzten erakundeen konpromisoa, hala badagokio, SPKLren 75.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.
 - c. Dokumentazio egiaztagarria, kontratuaren egikaritzean erabiltzeko edo atxikitzeko konpromisoa hartu zuen bitartekoak benetan dauzkala egiaztatzeke, SPKLren 76.2 artikuluen arabera.
 - d. Hala badagokio, kaudimenari buruzko beste edozein dokumentazio, dagokion lizitatzaille-erregistroan ez badago.

17.2. ERREKERIMENDUA BETE EZEAN

Horretarako emandako epean adjudikaziodun izateko proposatutako hautagaiak ez baditu aurkeztu behin betiko bermea eta eskatu zaizkion gainerako dokumentuak, puntuazio onenetan hurrena duen hautagaiaren aldeko adjudikazio-proposamena egingo da, eta dagokion epea emango zaio behin betiko berme hori jar dezan.



18. ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZATZEA

Gehienez 5 egun naturaleko epean Kontu-hartzaitzak gastu-konpromisoa fiskalizatu ondoren, 159.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz, kontratazio-organoak kontratuaren adjudikazioa ebatziko du, lehenengo sailkatuari eskatutako dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean, SPKLren 150.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Lizitatzailerik guztiei emango zaie adjudikazioaren berri, eta erakundearen kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-dokumentu baten bidez formalizatuta burutuko da kontratua; dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Adjudikazio-jakinarazpenean adierazitako epean, zeina ezin izango baita 15 egun baino gehiagokoa izan, adjudikaziodunak administrazio honetara jo behar du kontratua administrazio-dokumentu batean formalizatzeko.

Azkenik, formalizazio-dokumentuan ezarritako epean, zeina ez baita izango hilabete bat baino luzeagoa dokumentua sinatzen denetik, adjudikaziodunak administrazio honetara jo behar du proiektuaren zuinketa egiaztatzeko eta dagokion akta sinatzeko; une horretatik aurrera hasiko da zenbatzen kontratua egikaritzeko epea.

19. KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA

SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat atzematen badu kontratua prestatzeko arauari edo adjudikazio-prozedura erregulatzen duten arauari dagokienez. Kontratua ez egiteko erabakia hartzekotan edo prozeduran atzera egitekotan, kontratua formalizatu aurretik egin behar da, betiere aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.

III. KONTRATUA EGIKARITZEA

20. KONTRATUA EGIKARITZEAREN ARAUBIDE OROKORRA

Zuinketaren egiaztapenaren akta sinatzearekin hasiko da egikaritzen obra-kontratua, eta HAMAR (10) eguneko epean egin behar da hori, kontratua formalizatzen denetik aurrera.

Kontratistaren gain eta galorde joango da kontratuaren egikaritzea, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan eragindako galera, matxura edo kalteengatik, salbu eta SPKLren 239. artikuluan aurreikusitako ezinbesteko kasuetan.

SPKLren 202.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau egikaritzeko honako egikaritze-baldintza berezi hauek eskatuko dira (gizartearen, lanaren, etikaren edo ingurumenaren arlokoak zein bestelakoak):

1. Aramaioko Udalaren eta esleipendunaren arteko harremana euskaraz izango da gutxienez. Horretarako, kontratistak pertsona bat izendatuko du eta horrek, gaitasun nahikoa izango du udalarekin euskaraz jarduteko.

Kontratuaren exekuzioan zehar esleipendunak beharrezkoa ikusten badu kartel, ohar, jakinarazpen edo antzekorik jartzeko, gutxienez euskaraz idatzia izango da. Gainera, hori jarri edo banatu aurretik, udalari asmoaren berri jakinaraziko dio eta horrek onartu.

2. Kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienez arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Udalak ez du inolako



erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira. Besteen artea, azpimarratu beharrekoak:

Kontratatik lan arloan indarrean dauden legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapen guztiak bete behar ditu. Bereziki, sektoreari dagokion Arabako Hitzarmen Kolektiboan edo, hala gertatuz gero, berrikusitako hitzarmen kolektiboetan jasotzen diren lan baldintzak eta gizarte segurantzako eta laneko segurtasun eta osasuneko baldintzak aplikatu behar ditu, eta berak izango du gerta litezkeen lan istripuei dagokien erantzukizun guztia.

Kontratatik, orobat, zuritu beharko du, dagozkion datuak azpikontratututako enpresei eskatu eta gero, ezen enpresa horiek ere, obrak gauzatzean, lan arloan indarrean dauden xedapen horiek aplikatzen dituztela eta, zehazkiago, sektoreari dagokion Arabako Hitzarmen Kolektiboak jasotzen dituen lan baldintzak eta laneko segurtasun eta osasuneko betebeharrak aplikatzen dituztela.

Atal honetan jasotako betebeharrak betetzeak sortutako gastuak enpresa esleipendunaren konturakoak izango dira, eta kontratua gauzatzeko eskaintako prezioan sartuta egongo dira.

Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Gainera, funtsezko izaera duten kontratuzko betebehartzat joko dira; beraz, bete ezean isun ekonomikoak ezarri ahal izango dira (ez betetzearen larritasunaren arabera, kontratuaren aurrekontuaren ehuneko 10 gainditu gabe betiere) eta, hala dagokionean, kontratua suntsitzea eragin dezake, SPKLen Legeak 192, 193 eta 194 artikuluetan dioenari jarraikiz. Isun horiek kontratistari ordaindu beharreko zenbatekotik, osoki edo zati batean, kenduta ordainduko dira; bestela, bermearen bidez ordainduko dira, SPKLen Legeak esandako 192, 193 eta 194 artikuluetan dioenari jarraikiz.

3. Enpresa esleipendunak, prestazioa egiterakoan, lan merkatuan emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu behar ditu, 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerakoak, aurreikusitakoaren arabera.

Neurri horien artean dago, nahitaez, berdintasun plan bat egitea eta aplikatzea, betiere enpresak aurretik halakorik ez badu, 250 langile baino gutxiago dituelako eta, beraz, horretara behartuta ez dagoelako, 3/2007 Lege Organikoko 45. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Berdintasun planak aukera berdintasuna sustatzeko jarduketak aurreikusiko ditu, besteak beste, ondorengo arloetan: okupazio, sustapen eta prestakuntzarako aukera; sailkapen profesionala; ordainsariak; lan-saioaren antolaketa, bateragarri egiteko bizitza pertsonala, familiakoa eta lana; eta jazarpen sexualari eta sexu arrazoiarengatik aurrea hartzea.

Kontratuaren exekuzio esparruan egin behar da plana, aipatu lege organikoan ezarritako edukiarekin.

4. Enpresa kontratatik kontratuaren exekuzioari atxikitako langileen lana eta bizitza pertsonala edo familiakoa bateragarri egitea bultzatzeko neurriak ezarriko ditu eta, halakorik balego, azpikontratatik ezarri dituela ere egiaztatuko du.
5. Kontratua exekutatzeko langile berriak kontratatu behar badira eta enpresa kontratistan emakumeen eta gizonen arteko desoreka egon eta ondorioz emakume gutxiago badago, gutxienez emakume bat kontratatu beharko da edo, bestela, aldi baterako kontratua duen emakume bati kontratu mugagabea egon beharko zaio, kontratua exekutatzeko eta exekuzio epe osoan zehar. Ulertuko da gizonen eta emakumeen arteko desoreka dagoela emakumeak direnean langile guztien ehuneko 40 baino gutxiago.
6. Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Gainera, funtsezko izaera duten kontratuzko betebehartzat joko dira; beraz, bete ezean isun



ekonomikoak ezarri ahal izango dira (ez betetzearen larritasunaren arabera, kontratuaren aurrekontuaren ehuneko 10 gaintu gabe betiere) eta kontratua suntsitzea eragin dezake, SPKLren Legeak 192.1 eta 211 artikuluetan dioenari jarraikiz. Isun horiek kontratistari ordaindu beharreko zenbatekotik, osoki edo zati batean, kenduta ordainduko dira; bestela, bermearen bidez ordainduko dira, SPKLren Legeak 194.2 artikuluan dioenari jarraikiz.

7. Kontratuak esleitzeko orduan lehentasuna izango dute, kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatu behar dutenean lan-merkatuan emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna sustatzeko neurriak hartu dituzten enpresek, betiere enpresa horren eskaintzak, esleitzeko oinarri diren irizpide objektiboei dagokienez, eskaintza abantailatsuenaren parekoak badira.

Baldintza horiek funtsezko kontratu-betebeharra dira; horrenbestez, SPKLren 201 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jo ahal izango da SPKLren 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

Nolanahi ere, obrak egitean, zorrozki beteko dira agiri honetan ezarritako klausulak eta agiri honi atxikitako zehaztapen teknikoak, bai eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoa eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritakoa ere. Bereziki, kontratua egikaritzean, administrazioak lanak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu, eta ahalmen horiek idatziz zein ahoz erabili ahal izango ditu.

Kontratistari edo haren agindupeko pertsonaren bati egotz dakioken egintza edo ez-egite baten ondorioz arriskuan jartzen bada kontratua egokiro egikaritzea, administrazioak agindu ahal izango du beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela kontratuaren egikaritze egokia lortzeko edo berrezartzeko.

21. KONTRATISTAREN LAN-ARLOKO BETEBEHARRAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatzen dituen langileei dagokienez, kontratista behartuta dago lanaren, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienaren arlokoan indarrean dauden lege-xedapenak betetzera, bai eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboaren arabera lan-baldintzak ere. Administrazioa salbuetsita geratuko da ez-betetze horren erantzukizunetik.

22. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA EGIKARITZEN DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI EGITEN ZAIZKIEN KALTEAK DIRELA ETA

SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, obrak egikaritzen diren bitartean, kontratistak erantzukizuna izango du beraren ardurapeko langileen egintza, ez-egite edo zabarkerien ondorioz edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinalezatzearen ondorioz edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko zein pribaturi eragiten zaizkion kalte eta galera guztiena.

23. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 203. artikulutik 207. artikulura bitartean eta 242. artikuluan esanbidez jasotako kasuetan eta baldintzetan, betiere horrekin ez badira aldatzen lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak.

Horago adierazitako aldaketa horiek bete beharrekoak izango dira kontratistarentzat.

SPKLren 242.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuan ez datozen obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuko aldaketak direla-eta, administrazioak finkatuko ditu aldaketa horien prezioak, eta, kontratistak onartzen ez baditu, kontratazio-organoak aukera izango du obra-unitate horiek beste enpresaburu batekin kontratatzeko finkatutako prezioetan, edo obrak zuzenean egikaritzeko.

24. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Kontratazio honek izaera pertsonaleko datuak eskuratu beharra eragiten badu, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorretik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu



kontratatik, bai eta SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarritik eratorritakoak ere (xedapen hori Datu Pertsonalen Babeserako Lege Organikoarekin eta hura garatzeko araudiarekin lotuta).

25. OBRAK HARTZEA ETA BERMEALDIA

Obrak amaitzen direnetik hilabetera, gehienez, obrak hartzearen egintza formal eta positiboa egingo da, eta egintza horren akta idatziko da.

Halaber, URTE BETEKO epe bat ezarriko da, harrera formalaren egunetik aurrera, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako ondorioetarako bermealdi gisa.

Hala ere, bermealdia amaitu eta gero, kontratatik kontratua bete ez duelako ezkutuko akatsen ondorioz obra hondatzen bada, kontratatik izango du kalte eta galeren erantzukizuna, hamabost urtez, obra hartzen denetik. Epe hori igarota ez bada inolako kalte edo galerarik agertu, guztiz azkenduko da kontratistaren erantzukizuna.

26. KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZARRIKO ZAIZKION ZIGORRAK

26.1. Kontratu egikaritzeko epeak ez betetzea

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzen bada kontratua egikaritzeko epean (epe osoa zein, halakorik bada, epe partzialak), administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea (eta adjudikaziodunak bermea galdu), edo honako zigor hau ezartzea: zerbitzua behar bezala ematen berandutzen den eguneko 0,60 euro kontratuaren prezioko 1.000 euroko (BEZa aparte).

Berandutzeagatik ezartzen diren zigorren zenbatekoa kontratuaren prezioaren %5en multiplo batera heltzen den bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, edo, bestela, kontratua egikaritzen jarrai dadin agintzeko, zigor gehiago ezarrita.

26.2. Prestazioen egikaritze partziala ez betetzea

Kontratistak ez badu betetzen kontratuan zehaztutako prestazioen egikaritze partziala, eta horren errua berari egotzen ahal bazaio, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, edo, bestela, kontratuaren prezio osoaren %10en baliokidea den zigorra ezartzea.

26.3. Prestazioa oker gauzatzea

Prestazioa oker gauzatzen bada, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren %50.

26.4. Ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu betetzen ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak, batez ere soldatak ordaintzen behin eta berriro atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza okerragoak doloz eta era larrian aplikatzen baditu, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren %10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren %50.

26.5. Azpikontratatikiko betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa gorabehera, kontratatik azpikontratatik dituen betebeharrak betetzen ez baditu, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.



27. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZIOAK

Obra-kontratua suntsiarazteko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 245. artikuluetan daude ezarrita.

28. KONTRATUAREN LAGAPENA

Kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga diezazkioke kontratistak, baldin eta:

- a) lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak erabakigarriak izan ez badira kontratua hari adjudikatzeko,
- b) merkatuan lehiaketa benetan murrizterik ez badakar lagapenak,
- c) kontratistaren ezaugarrien aldaketa nabarmenik ez badakar lagapenak, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementua diren kasuetan, eta
- d) SPKLren 214.2 artikuluan jasotako baldintza eta betekizunekin bat badator lagapena.

29. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak prestazioaren gauzatze partziala hitzartu dezake hirugarrenekin. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu azpikontratazio horrek.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

30. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratua administrazio-kontratua izango da, eta dokumentu honek eta berari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Horretan xedatuta ez dagoen guztiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete beharko du, eta, lege horren kontra ez doan guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorra (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (zeinak partez garatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikatzekoak diren kasuan kasuko gainerako arauak.

Administrazio-baldintza partikularren agiri hau eta espedienteari atxikitako gainerako agiriak bat etorri ezean, agiri honetan xedatutakoak izango du lehentasuna.

31. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioari honako eskumen hauek dagozkie: kontratua interpretatzea, kontratua egikaritzeko dauden zalantzak argitzea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakioken erantzukizuna zehaztea, kontratuaren egikaritzea etetea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea; betiere SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako muga barruan eta haietan jasotako baldintza eta ondorioak betez.

32. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebazteko ditu; administrazioaren biderei amaiera emango diote organoaren erabakiek, eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan. Horrek ez du kentzen, hala badagokio, kontratazioaren alorreko errekurso berezia jarri ahal izatea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60. artikulura arteko araututakoaren arabera, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako edozein errekurso.



I. ERANSKINA.

KONTRATUAK EGITEKO ESKAKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO ADIERAZPEN EREDUA

Izen-abizenak	NAN zenbakia
Helbidea	Herria
Lurralde historikoa / probintzia	Posta kodea
Helbide elektronikoa	Telefonoa

Gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa dudala eta ari naizela:

neure izenean

honakoaren ordezkari legez (ordezkaritza kasuan, bete ondorengo taula):

Izen-abizenak / Sozietate izena	NAN / IFK zenbakia
Helbidea	Herria
Lurralde historikoa / probintzia	Posta kodea

Jakin dut **ARAMAIOKO UDALAK** prozedura abiarazi duela **NARDEAGA ETA PEDRO IGNACIO BARRUTIA KALEEN ELKARUNEA GUZTIZ IRISGARRI EGITEKO LANAK** prozedura ireki sinplifikatuaren bidez kontratatzeko. Horrekin bat, neure erantzukizunpean,

ADIERAZTEN DUT

- I. Aipatutako pertsona fisiko edota juridikoak, haren administratzaileek eta legezko ordezkariak, eta halaber sinatzaileak, ez dute kontratatzeko debeku eta bateraezintasunik bat ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan jasotakoetatik.
- II. Aipatutako pertsona fisiko edota juridikoak, beterik ditu indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak.
- III. Aipatutako pertsona fisiko edota juridikoa alta emanda dagoela dagokion Jarduera Ekonomikoen gainezko zergaren epigrafean.
- IV. Aipatutako pertsona fisiko edota juridikoak, ez du administrazio kontratatzailearekiko zerga-zorrik epe exekutiboan, edo bermatuak ditu.
- V. Sozietateak betetzen ditu kontratu hau lortzeko administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritako eskakizun guzti-guztiak, bereziki 12. eta 17. klausuletan ezarritakoak.

.....(e)n, 20.....(e)koaren(e)(a)n

Sinadura



**II. ERANSKINA.
PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA.**

Izen-abizenak	NAN zenbakia
Helbidea	Herria
Lurralde historikoa / probintzia	Posta kodea
Helbide elektronikoa	Telefonoa

Gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa dudala eta ari naizela:

neure izenean

honakoaren ordezkari legez (ordezkaritza kasuan, bete ondorengo taula):

Izen-abizenak / Sozietate izena	NAN / IFK zenbakia
Helbidea	Herria
Lurralde historikoa / probintzia	Posta kodea

Jakin dut **ARAMAIOKO UDALAK** prozedura abiarazi duela **NARDEAGA ETA PEDRO IGNACIO BARRUTIA KALEEN ELKARUNEA GUZTIZ IRISGARRI EGITEKO LANAK** prozedura ireki sinplifikatuaren bidez kontratatzeko eta, horrekin bat,

ADIERAZTEN DUT

1) Konpromisoa hartzen dudala hura egikaritzeko, prezio honetan:

	NAGUSIA €	BEZa (%21)	GUZTIRA €
OINARRIZKO AURREKONTUA	66.943,06 €	14.058,04 €	81.001,10 €
PROPOSAMEN EKONOM.	€	€	€

Prezio horretan sartuta daude kontzeptu guztiak: zergak, gastuak, edozein zerga esparrutako tasak eta arielak, eta kontratistaren industria-etekina, besteak beste.

2) Ezagutzen ditut preskripzio teknikoaren agiria, administrazio-klausula partikularren agiria eta kontratu hau eraenduko duten gainerako dokumentu guztiak. Denak esanbidez onartu, eta ontzat hartzen ditut beren osotasunean.

3) Ordezkatzen dudana enpresak betetzen ditu irekitzeko, ezartzeko eta funtzionatzen hasteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen betekizun eta obligazio guztiak.

.....(e)n, 20.....(e)koaren(e)(a)n

Sinadura



**PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA
CONTRATACIÓN, POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO, DE LAS OBRAS
PARA DOTAR DE ACCESIBILIDAD LA CONFLUENCIA DE LAS CALLES NARDEAGA Y
PEDRO IGNACIO BARRUTIA.**

I. ASPECTOS GENERALES Y CONFIGURACIÓN DEL CONTRATO

1. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto las obras para dotar de accesibilidad a la confluencia de las calles Nardeaga y Pedro Ignacio Barrutia de conformidad con la documentación técnica que figura en el expediente que tendrá carácter contractual.

Código CPV: 45233262-3.

No procede la división en lotes, según se justifica en la documentación que se adjunta en el expediente, de conformidad con el artículo 99.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

2. JUSTIFICACIÓN DE LA NECESIDAD DE CONTRATAR

En el pliego de prescripciones técnicas constan las razones que han llevado a esta Administración a la celebración del contrato a que se refiere el presente pliego.

3. PLAZO DE EJECUCIÓN

El plazo total de ejecución de las obras objeto de la presente contratación será de DOS MESES, contado a partir del día siguiente al de la firma del acta de comprobación del replanteo.

El contratista se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo citado, y para ello no será necesaria intimación previa por parte de la Administración.

4. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN Y VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO

El presupuesto base de licitación será de 66.943,06.-€, más 14.058,04.-€ correspondientes al IVA. Esto es, en total, 81.001,10.-€. presupuesto que podrá ser mejorado por los licitadores.

A los efectos previstos en el artículo 100.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (en adelante, LCSP), el referido presupuesto se desglosa del siguiente modo:

- Costes de personal: 36%
- Costes indirectos: 13%
- Beneficio industrial: 6%

2.- El valor estimado del contrato es de 66.943,06.-€, excluido IVA.

El precio del contrato incluirá una relación de precios unitarios, debidamente desglosados, que son los que regirán durante su ejecución. Si tales precios no son presentados, se entenderá que el licitador aporta los que figuran en el presupuesto de la Administración, afectados en igual porcentaje de baja que el precio contenido en su proposición económica.

5. FINANCIACIÓN

Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación con cargo al presupuesto del año en curso.



6. RÉGIMEN DE PAGOS

El pago de las obras ejecutadas se realizará mediante certificaciones periódicas expedidas por el director facultativo, de acuerdo con los servicios prestados durante dicho periodo, la cual será supervisada y contrastada por parte del/a técnico/a municipal responsable del servicio y, si procede, aprobada por el órgano competente.

Una vez aprobada la factura, ésta será abonada dentro de los plazos legalmente previstos en el artículo 198 de la LCSP.

La empresa contratista presentará la factura en formato electrónico, a través del Punto General de Entrada de Facturas de Álava (www.aramaio.eus, en el apartado "tramiteak online") según lo dispuesto en la Norma de Ejecución Presupuestaria municipal, en cumplimiento de la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica y creación del registro contable de facturas en el Sector Público.

Códigos DIR3 precisos para la presentación de las arriba mencionadas facturas electrónicas:

Ayuntamiento de Aramaio:

- Órgano gestor: L01010035
- Unidad tramitadora: L01010035
- Oficina contable: L01010035

7. REVISIÓN DE PRECIOS

En el presente contrato no procederá la revisión de precios, de conformidad con el artículo 103.1 de la LCSP.

8. GARANTÍAS

